BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4863

EBAZPENA, 2012ko urriaren 2koa, Eusko Jaurlaritzako Kiroletako zuzendariarena, Euskal Herriko Urpeko Jardueren Federazioaren estatutuetan egindako aldaketak onartu, eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen dituena.

Euskal Herriko Urpeko Jardueren Federazioa EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu zen 1986ko uztailaren 30ean, 117. zenbakiarekin. Orain Federazioaren estatutuak berriro erredaktatu dira.

Euskal Herriko Urpeko Jardueren Federazioak, 2012ko otsailaren 6an egindako Ezohizko Batzar Orokorrean, bere estatutuen aldaketa onartu zuen, eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Aldaketa hori bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Euskal Herriko Urpeko Jardueren Federazioaren Estatutuen 5. artikuluaren aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea. Artikulu hori honela idatzita gelditzen da:

5.– Zuzendaritza Batzordearen kargu guztiak lehentasunez ohorezkoak dira, salbu eta idazkari eta diruzain karguak eta Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 114 eta 115 artikuluetan aurreikusten diren kasuak; horietan ordainsariak jaso baitaitezke.

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Kiroletako zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango zaio EAEko Auzitegi Nagusiari, ebazpena jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 2a.

Kiroletako zuzendaria,
JUAN FRANCISCO MUTILOA ALDAZABAL.